

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2021

EUSKERA POESIA 14-16URTE

BIGARREN SARIA:

Maitasunaren gorrotoa

Miren Yoldi Eceolaza

Ontzen hasiak gara

Frutondoetako muxikak bezala.

Eta zukutsuan gaude

Lagunez eta ezagunez inguratuak

Baita familiaz eta etsaiez ere.

Usteldutako muxikak

Dena laburtu egiten dute

3 hitz madarikatuetan

Dena deskribatzen dute.

Drogak, maitasuna, zorotasuna...

Bai, egia da hauek presente ditugula

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA POESIA 14-16 URTE

BIGARREN SARIA:

Erotasuna bizitzen dugula,
Drogak frogatzen ditugula
Eta maitasunez kontsumituta gaudela.

Kontsumituegiak agian...

Azkeneko hau

Sentimendu bat izan arren

Gure bizitzaren motorra dela

Sinesten bukatu dugu.

Gure ahoek bakarrik

Gai hau dastatzen dute

Nazkamendu puntua iritsi den arte.

Lagunak baztertzen hasiak gara

Ahazturan murgilduz ibili gara.

Benetan bizitza maitasunean oinarrituta egon behar da?